

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

Entzia mendilerroa (Araba)

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
GORKA AZKARATE

Lautada oinpean, trikuharriei itzulua

Laurogeita bost trikuharri inguru ezagutzen dira Araban; Aguraindik gertu, Arabako Lautadako goxotasunean, horien artean ezagunenetakoak diren bi daude: Sorginetzekoa eta Aizkomendikoa. Trikuharri horiek bisitatze hutsa Euskal Herriko txoko eder honetara gerturatzeko nahikoa aitzakia ez balitz, mendi txango erraz bezain ederra osatzea proposatzen dugu, lautada hautsiz mila metrotik gora altxatzen den Entzia mendilerroan barrena. Gozamen itzela eremu berdingabea.



Zortzi udalerrik osatzen dute Aguraingo eskualdea: Agurain bera, Dulantzi, Asparren, Barrundia, Burgelu, Gauna, Donemiliaga eta Zalduondo. Udalerrri bakoitzak, halaber, Arabako Lautadan barreiatutako herri eta auzo andana hartzen du bere baitan. Bizkaia, Gipuzkoa eta Euskal Herriko beste inguru konprimituagoetan ez bezala, paisaia eta ikuspegia zabaldu egiten dira eremu emankor honetan, distantziei beste dimentsio bat emanaz, ezinbestean.

Aguiraingo erdigunetik abiatu eta Foru kaleari jarraiki herriko irteerarentz joanez hasiko dugu txangoa. Autobide nagusia zeharkatzen duen zubia igaro eta Opakuara eta mendatera doan eskualdeko errepidea hartu arte, auto artean egin beharko ditugu ibilaldiko lehen urratsak, oinezkoentzat propio prestatu gabeko asfaltozko eremu gorabeheratsuan. Okariz herria da, ordea, gure ibilbideko lehen mugaria, eta bertara joko dugu, Opakuara eramango gintuen bideari jarraitu eta ondoren ezkerrean joaz edo, hobe, aukeran, autobidea zeharkatu bezain laster Opakuako errepideari paralelo zaion nekazal bide lasaiago bat hartuz.

Zangoak berotzeko baliagarri izango zaigun pare bat kilometro egin ostean, Donemiliagako Okariz herrira helduko gara. Udalerrri berean dagoen Bikuña izango da gure ondorengo jomuga. Gorabehera handirik gabeko estreina-kilometro hauetan, benetako bakea eta barne atsedena aurkituko ditu ibiltari bakartiak. Hausnarketarako tarteak, funtsean. Nekazal bide estu batek lotzen ditu Okariz eta Bikuña, eta luze baino lehen helduko gara azken horretara. Entziako mendilerroa gertu hauteman daiteke honez gero. Hortzak estutu eta lautadatik mendilerroa igozteko ordua heldu da.


Legaireko soilgunea

Bikuña herritik abiatuz Bikuñako lepora doan bide zabalarri jarraitzea da, ziurrenik, Entziako gailurreriara igotzeko biderik zuzen eta erabiliena. Oraingoan, ordea, bide ezezagun baina ezin ederrago bati jarraitzea proposatzen dugu: Mirutegi eta Surbe (Atau) gailurren arteko Atauko mendatera zuzenean igotzen den xenda paregabeari jarraitzea, alegia. Atauko harrartetik Legaireko soilgunera heltzea, ibilaldian biziko dugun

une zoragarrienetako izango da zalantzarik gabe. Harratearen azpiko baso itxiaren gerizpetik Legaireko zelai zabalaren argitasunera igarotzea betegarria da oso.

Harratera heldu eta ezkerreantz joko dugu lehendabizi, Nafarroa alde-
ra ikuspegi paregabea duen Surbe edo
Atauko gailurrera (1158 metro) igo-
tzeko. Pare pare izango dugu Beriain
erraldoia, Entzia eta Urbasa mendile-
roen ertz amaigabearen zelatari. Lau-
tadaren bestaldean, gertu sumatuko
ditugu Aratz eta bere inguruko gailur
ezagunak (Allaitz, Allarte, Umandia,
Arbarrain...) eta atzean Aizkorriko
mendilerroa. Ekialderago, berriz, Ara-
lar hegoaldeko tontorrak, aski ezagu-
nak horiek ere, Putterri eta Artxueta
kasu. Eguraldi ona lagun, Kodes eta
Kantauriko mendikateek itxiko digute
Surbetik izango dugun Araba hegoal-
dearen gaineko ikuspegi zabala.

Ikusmiraz gozatu eta atsedean hartu ostean, Mirutegiko gurutzea dagoen muinorantz joko dugu, Legaireko soilgunea zeharkatuz; Atauko harrate ingurutik bigarrenez igaro eta Mirutegiko azken maldatxoari aurre egingo diogu. Araba-





Ezkerreko argazkian, pagadi ederra Opakuako bidean. Eskuinekoan, Surbeko ertza eta Olanoko haitzak, Mirutegitik ikusita.

ko Lautadaren gaineko ikuspegi zoragarriaz gozatu badugu Surbeko gailurretik, Mirutegiko talaiaetik izango duguna ere ez zaigu makala irudituko. Urrun xamar hautemango dugu Agurain, dagoeneko badaramatzagu-eta hamabi kilometro inguru ibilbidea hasi dugunetik. Mirutegin (1185 metro) dago Entziako gurutze famatua, baina gailur horretatik hurbil dagoen Ballo (1197 metro) da Entziako punturik garaiena. Legaireko soilgu-nea utzi, pagadi ederrean barneratu eta Bikuñako lepora eramango gaituen xendaren arrastoak bilatuz –kontu handiz jarraitu kairn edo harri-pilo arrastoei–, Opakuako

mendaterako bideari ekingo diogu. Baso pista batetik Opakuako mendateko errepidera hurbiltzen goazen heinean, geroz eta gertuago sumatuko dugu Entzia mendilerroari jarraipena emango dion Arrigorrista gailurra.

Arrigorrista eta Santa Elena

Opakuako mendatean errepidea zeharkatu eta laster agertuko du xendak goranzko joera, Arrigorrista berezia jomuga. Ordu laurden inguruko igoera ederraren ostean, Entzia mendilerroko gailur ezagunera helduko gara. Ikuspegi mugatu xamarra eskainiko digu Arrigorristak (1153 metro), basoak eta landa-

rediak ia guztiz ezkutatzen baitute punturik garaiena. Gaitz erdi, lautadaren gaineko ikuspegia ahalbide-tzen duen leihatila bat badagoen. Parean hautemango dugu Arrizala herria, eta bertatik gertu Sorginetxe-ko trikuharria. Jarrai dezagun, hala ere, Entziako gailurrerian barrena garamatzan txangoa!

Arrigorristarako igoera nahasi xamarra izan bada zenbait unetan, gorabehera askorik gabeko ondorengo kilometroetan xenda eroso eta nabarmena izango dugu lagun, eta bizkor egingo dugu aurrera. Atxuri edo Larredeaz gailurrera igoko gara ia oharkabean (1103 metro), ibilbideak jarritako beste muino bat baino ez

Sei mila urteko hilobiak

Trikuharri edo dolmenak –dolmen hitzak harrizko mahai esan nahi du–, taldekako hilotxiak dira. Komunitate bakoitzak bertan lurperatzen zituen hildako kideak, beren ondasunekin batera. Monumentu sendoak dira, eta eraikitzeak jende askoren parte hartzea eskatzen zuen.

Trikuharriaren neurriak alda daitezkeen arren –ia pertsona bakarrarentzat soilik ziren megalito txikienetatik handienetaraino–, osagai bertsuak izaten zituzten denek ala denek: hildakoak lurperatzeko gela, hartarainoko korridorea eta guztia estaliko zuen harri eta larrezko tumulua. Trikuharri batzuk eraikitzeke, harlauza handien ordezk egurra, harri zabal txikiak eta harri kozkorak ere erabili izan ziren.



Sorginetzeko trikuharria.

Kristo aurreko 4000. urte inguruan hasi ziren trikuharriak eraikitzen, eta oso azkar zabaldu ziren. Bigarren milurtekoaren hasieran amaitu zen betiko, hilobi eraikuntza horien erabilpena.

Aizkomendiko trikuharria Euskal Herrian ezagutzen den mota horretako lehenengo monumentua da. Egilaz herrian dago, eta halabeharrez aurkitu zuten, 1832an. Haren jatorrizko itxura oraingoaz bes-telakoa zen, gaur egun oso eraberriturik baitago. Hainbat arkeologo aritu dira ikerkuntza lanak egiten aztarnategi horretan, tartean Joxe Migel Barandiaran bera ere.

Arrizala herrian kokaturik dagoen Sorginetzeko trikuharriari dagokionez, ez dago oso argi noiz aurkitu zuten, baina badirudi hurbil dagoen Aizkomendiko trikuharriaren aurkikuntzaren inguruko zenbait idatzitan Sorginetzekoaren berri ere ageri dela.

bailitzan. Arrigorrista atzean uztearekin batera xenda basotik irten denez, lautadaren gaineko ikuspegi panoramiko itzela berreskuratu dugu berriro. Eremu honetan, gainera, amildegia ertzetik bertatik egiten du xendak aurrera zenbaitetan, ibilbidea are ikusgarriago bilakatuz. Emandako pauso bakoitzak dastatuz, San Juan lepora helduko gara. Lepo honetan lautadara zuzenean jaisteko ihesbidea topatuko dugu, luze gabe Egileor herrira doan bidexka, alegia. Guk, ordea, ibilbide zirkularra borobiltze aldera, gailurreriari jarraituko diogu, Santa Elenaren bila.

Agertu eta desagertzen den bidexkarekin jolasean, baina kairn arrastoei adi, aurrera egingo dugu, beraz, Santa Elena (1111 metro) gailurre-raino. Mendi honen punturik garaiena basoan dagoenez, metro batzuk behe-rago dagoen talaia baliatu beharko dugu lautadari azken begiratu egiteko. Izan ere, Santa Elenaren oinean dagoen Luzkandoko lepora jaistearekin batera, gailurreria utzi eta Gereñu eta Alaiza herriak batzen dituen errepideranzko xenda hartuko dugu, Idiagaina, Itxogaina eta Gasteiz inguratzen duten gainerako gailurrak (Kapildui, Pagogan, Lendiz,...) hurrengo baterako utziaz.

Agurainera itzulera

Luzkandoko lepotik lautadarako jaitsiera ere ederra da zinez, txangoari amaiera ezin egokiagoa emango diona. Hankak hosto artean hondoratuz ametsetako baso bat igaro eta urmael bat inguratuz Gereñu Agurainengandik bereizten duen errepidera helduko gara. Errepidea jarraituz Agurainera heldu besterik ez zaigu faltako ibilaldi ezin ederragoa osatzeko. Egun zoragarria igaro izanaren sentipen gozoarekin helduko gara Agurainera. Ez dugu askorik behar zorientasun betea erdiesteko. ■

GPUNTUA

IPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2007



www.gpuntua.com

2. FINALAURREKOA

Azaroak 24, larunbata

OIARTZUN, Elorsoro Kiroldegia,

18:00etan



Amala Agirre, Iñigo Manzísidor "Mantxi", Jon Mala,
Iker Zubeldia, Xabier Sukia, Arkaitz Oiartzabal.

Laguntzaileak:
